

ESPAINIAKO FINANTZA SEKTORETIK AT BESTE HITZARMEN BAT ESKATU DUTE ELA, LAB, CIG ETA CSCK

Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko sindikatuak, lan esparru propioen alde

■ ELA, LAB, Galiziako CIG eta Kataluniako CSCren irudiko, «beharrezkoa» da bakoitzak bere hitzarmen propioak sinatzea

■ Lan harremanak dezentralizatzearen aldeko konpromisoa berretsi zuten atzo lau sindikatuak Iruñean

■ Finantza sektorea «ezinbestekoa» da berezko hitzarmen esparruan «politika ekonomikoa aurrera eramanez ahal izateko»

Erredakzioa / Iruñea

ELA eta LAB sindikatu aber-
tzaleek, Galiziako CIGek eta
Kataluniako CSCek, sindika-
tuen arteko elkargoak, lan
harremanetarako eta finantza
sektoreko hitzarmen
nazionalerako marko pro-
pioaren deklarazioa sinatu
zuten atzo Iruñean.

Aldarrikapena ez da berria,
eta LAB sindikatuko finantza
arloak Mutiloabeitin antola-
tutako sektoreko bigarren
kongresuan izenpetu zen.
Sinaduran izan ziren Joxean
Urkiola, LABeko ordezkaria;
Carles Sastre, CSC sindika-
tuko; Montxo Gonzalez,
CIGekoa; eta Iñaki Saldise,
ELAren izenean.

Sinatzaileek finantza sek-
toreko enpresetan dute
ordezkaritza, eta euren irudi-
ko, «ezinbestekoa da naziona-
litate mailako hitzarmenak
negoziatzea». Era berean,
uste dute finantza sektorea
berezko politika ekonomikoa
gauzatzeko beharrezkoa dela.
«Finantza sektorea estrate-
giakoa da berezko politika
ekonomikoa eta gure herrie-
tako errealitateetara egokitu-
a egiteko. Beraz, ordezkatzeko
ditugun langileen beharretara
egokituak egon behar
lukete», gaineratu zuten.

Urkiolak azpimarratu zuen
«Estatuko araudiak» langile-
en eskubideak urratzen dituela.
ELAko ordezkariaren
arabera, «negoziazio kolekti-
boa berezko markotik alden-
tzen du eta horien partehar-
tze zuzena eragozten du». Alde
horretatik, gogoratu
behar da ELA eta LAB sindi-
katuek bost urte daramatela
euskal esparru baten aldeko
borrokan elkarrekin.

LABek antolatutako jardun-
aldiak balio izan zuen Kata-
lunian zein Galizian lan
harremanetarako marko pro-
pioa lortzeko egiten ari direna
plazaratzeko. Montxo Gonza-
lez CIGeko ordezkariak gogo-
ratu zuen borrokarako edo-
zein une dela ona. «Gaur
Galizian banketxeetako
hitzarmenen aldeko eta lan-



JOXE LACALLE

Galiziako CIG, Kataluniako CSC eta Euskal Herriko LAB eta ELAko banketxe alorreko ordezkariak, atzo Iruñean.

**JOXEAN URKIOLA
(LAB)**

■ ■ ■ «Estatuko
markoak langileen
eskubideak
urratzen ditu,
negoziatzen
parte hartzeko
eskubidea ukatzen
duela»

**CARLES SASTRE
(CSC)**

■ ■ ■ «Kaleratzeen
kasuan,
Kataluniako
sindikatuaren
elkartasuna
hutsaren
burrerak da»

kide baten kaleratzearen
aurkako mobilizazio bat egi-
ten ari da», esan zuen. Hori
eredutzat harturik, negozia-
zio marko propioa lortzeko
egiten diren ekintza guztiak

sustengatu behar direla azpi-
marratu zuen, «hori delako
geratzen den irtenbide baka-
rra».

Bestalde, Carles Sastre,
Kataluniako CSC sindikatu-

ko ordezkariak, han egoera
nahiko txarra dela azaldu
zuen. Sastrearen arabera,
«elkartasuna hutsaren
burrerak da» Katalunian
banketxeen sektorean.

Desadostasunak larunbaten kontura

Erredakzioa / Donostia

HEGO Euskal Herriko ban-
ketxe alorreko langileek ez
dute lan hitzarmen propio-
rik. Sindikatuak eta patro-
nalak Espainian sinatzen
dutena aplikatzen da lau
probintzietan.

Datorren urteko lan
hitzarmena negoziatzen
dihardute UGTk, CCOO
eta AEB patronalak (Espa-
niako Banketxe Pribatu-
en Elkarteak), baina orain arte
gutxi aurreratu dute nego-
ziatzen. Orduetarako eta
urteko lanorduek eragin
dute patronalaren eta sindi-
katuen artean desadosta-

sun gehien. AEBko ordezkari-
en ustez, banketxeak
larunbatetan irekitzea ezin-
bestekoa da, eta puntu hori
negoziatzen sartu ere ez
dute egin nahi. «Estrategi-
koa da guztiz bulegoak
larunbatetan irekitzea,
Europako gainerako banke-
tuekin eta aurrezki kutxe-
kin lehiatu ahal izateko». Sindikatu-
etako ordezkariak ustez, ordea,
larunbateko kontua ez da
«lehiakortasunerako gai
estrategikoa», eta lanaldia
eta ordutegia langile-
en, enpresen eta bezeroen
beharren arabera egokitu
behar dira. Banketxeetako

langileek larunbatetan lan
egiten dute urria eta apirila
bitartean; maiatza eta iraila
bitartean, aldiz, ez.

CCOOk banketxe alorre-
ko bozeramaileek ohartarazi
dutenak, larunbatetako ez
da «inondik ere lehiakortasun-
erako baldintza. Azken
urteotan, aurrezki kutxeta-
ko bulego gehientsuenek
larunbatetan itxi egiten
dute, eta hala ere finantza
erakunde horien merkatu
kuotak gora egin du». Gau-
zak horrela, banku alorreko
lan hitzarmenerako nego-
ziatzen ez aurrera ez atzera
daude.